

EURIBOR

Josemari Sarasola

Gizapedia



- **EUR**ocean **I**nter**B**ank **O**ffered **R**ate esan nahi du: Europako bankuen arteko tasa eskainia, literalki.
- Europako bankuek beraien artean maileguak egiten dituztenean kobratzen den interes-tasa orokorra adierazten du.
- Mailegu horiek banku arteko gordailuen bitartez egiten dira, epe jakin batera. Adibidez, %3-%4 banku arteko gordailu bat *eskaintzen* dugunean, banku gisa beste banku batetik %3an maileguak hartu eta %4an maileguak emateko prest gaudela esan nahi du.

- Euriborra bankuen artean egun jakin batean eurotan egin diren mailegu guztietako interes-tasen batezbestekoak kalkulatu zehazten da, baina tasen %15 altuena eta baxuena baztertuz, eta egindako operazioen zenbatekoaren arabera haztaturik.
- Euriborraren eguneko kotizazioa horretatik, hileko eta urteko euriborrak ere kalkulatu dira.
- Kalkuluan ez dira Europako banku guztiak barne hartzen, kaudimen eta kreditu ahalmen bikaina duten bankuen panel edo lagin bat baizik.
- 1998tik argitaratzen da egunero-egunero, goizeko 11:00etan, Europako Banku Federazioaren eskutik, arau zorrotzen arabera eta kalkulurako erabilitako operazio guztien datuak erabateko gardentasunez zehaztuz.

Zertarako euriborra?

Euriborra hainbat finantza kontratuetan eta bereziki hipoteka maileguetarako erreferentziazko interes-tasa moduan erabiltzen da, mailegu horiek interes-tasa aldakorrarekin izatea adostu denean. Orokorrean, kontratu eta mailegu horietan ezartzen interesa euriborra gehi portzentaje finko bat izaten da (adibidez, euribor+%0.50). Gehigarri finko hori bankuaren irabaziaren atal nagusia dela esan daiteke. Ondorioz, euriborra igotzen denean, hipotekagatik familiek ordaindu beharrekoa ere igo egiten da.

- Euriborra Europako Banku Zentralak ezartzen duen interes tipo ofizialaren mendean dago. Tipo ofizialak Europako Banku Zentralak banku pribatuei ofizialki kobratzen dien interesa adierazten du. Euriborra eta banku zentralaren tipoa batera doaz (ofiziala igotzen denean, euriborra ere bai), baina euriborra beti gainetik dago, bestela bankuek nahiago izango lukete banku zentralari eskatu.
- Euriborra ez da erreferentziazko interes-tasa bakarra: Eulibor (Londresen oinarritutakoa), Mibor (Madrilen oinarritutakoa), Fibor (Alemanian oinarritutakoa) eta abar badaude baita ere, beti ere eurotan egindako operazioetarako.
- Europako Banku Zentralak ordea, tasa nazionalak baztertu eta euriborra erreferentzia nagusi moduan erabiltzeko gomendioa egin zuen.